

Radio Bilbaoren Bikaintasunari saria emongo deusie Gontzal Mendibileri

12. orrialdea

Zabalak irabazi dau Euskal Mendizale Federazioaren Bloke Txapelketea

Zezeilaren 16an, Euskal Mendizale Federazioak antolatutako Euskal Herriko Bloke Txapelketea jokatu zan Iruñean eta dimoztarrak lortu eban txapela. Irantzu Porres Etxebarriak eta Irati Zabala Muxikak osotu eban podiuma. 10. orrialdea



Irati Astondoa eta Aitzol Atutxa azkora txapelketa finaletan

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

313

2019ko martiaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Martiaren 8an mobilizazio feministak

Igazko martiaren 8ko Bilboko manifestazioaren irudia mundu osoan zabaldu zan. Urtebete geroago andren aldarrikapenak bere horretan jarraituten dabe. Aurten be bizitzak erdigunean ipinteko eskatzeko mobilizauko dira.

Bilbora joateko deialdia egin dabe hainbat herritan, baina Arratian be elkarretaratzeak eta manifestazioa deituta dagoz.

Hurrengo egunean, hilak 9, Arratiako Andren Mendi Martxeak bere bederatzigarren edizinoa izango dau. Aurten, Diman batu eta Balzolarra joango dira partaideak.

Martiak 8, Andren Nazinoarteko

Egunaren inguruan, hainbat jarduera antolatu ditue Arratian eta Zeberion: zinea, antzerkia, berbal-diak, mahai-inguruak, tailerrak, kopauak... Urtero lez, Arratiako andra taldeak, talde feministak, udalak eta AUMk kartel bateratua egin dabe. Horrezaz aparte, hainbat herritan beste ekintza batzuk be antolatu ditue. 8. eta 9. orrialdeak



ARRATIA

Martiaren 1etik 5era arte egongo da non ospatu Aratusteak Arratian

Herri gehienetan martiaren 1 eta 2 bariku-zapatuan ospatuko dabez Aratusteak. Eskola-umeak barikuan batez be, eta familiak eta kuadrillak zapatuan. Domekan, hilak 3, Arantzazun prestatu dabe jaia. Bedian barriz, herrian ohitura dan moduan, martitzena izango da egun handia.

Holan, mozorroa jantzita, Arratian herriz herri ibilteko aukerea dago, desfileetan edo antolatu diran hogeta hamar ekintza ingurutako gustukoenetan parte hartzean. 5. orrialdea



ZEBERIO

2019ko aurrekontuak onartu ditue

Zezeilaren 18an onartu ebezan Zeberion 2019ko aurrekontuak, EAJ-PNVren aldeko eta EH Bilduren kontrako botoakaz. Partidarik garrantzitsuenak Zubialdeko lanak eta bideen konponketak egiteko izango dira. Memoria Historikoa berreskuratzeko be diru partida bat dago. Aurten Udalak 1.475.710 euro kudeatuko ditu, igaz baino 115.000 euro gehiago. EH Bilduk ezezko botoa emon eban, beste gauza batzuen artean, "politika egiteko modua" ez daualako konpartiduten. 6. orrialdea

IGORRE

Herriko dendetan erosteko bonoen kanpaina abiatu dau Udalak

Bonoak 20 eurotan erosi daitezke eta 25 euroko balioa daukie Igorren kanpaineri atxikitutako komertzioetan. Persona bakoitxak gehienez hiru bono erosi ahal izango ditu.

Kanpaina honetarako Udalak 6.000 euroko diru laguntzea emon dau, herriko komertzioa bultzatzeko helburuagaz. AME alkarteko Igorreko 26 komertzioetan gastau ahal izango dira bonoak.

Mila bono dagoz salgai eta eurak erosteko lehentasuna izango dabe Igorren bizi diranak. Holan, Igorreko martiaren 1etik 8ra erosi lekiez bonoak eta 11tik aurrera, gura dauanak, edonon errolatuta egonda be. 7. orrialdea

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

Literatura txokoa

DISOLUZIO AGIRIAK

Dana fin, dana delikadu idazten dau Jose Luis Otamendik. Dino: "20. mendea zen/ gaur nahi beste ireki ditu ortziak uhateak/ eta sare artean jendea arrantzatu dute itsasoan", eta badoa poema gora eta gora, edo behera eta behera, segun eta zelan begiratzeko deusazun, eta XX. mendea barik 20. mendea idazten dauan nonor, zelan kalifikatu, zelan definitu "uhateak" berbea darabilen poeta hori, Azpeitia 1959?

Jose Luis Otamendi gure gelan sartu zan tximeleta eria bera da: hegakadak suabeak ditu, baina munduaren beste ertzean urakan haizea da. Poemak islatze bat sortzean dabe inkontzientean, irabazi egiten

dabe irakurlea euren arnasa luze-luzeagaz. Emoten dau *res* publikoaz dabilela bizimoduaz dabil, esango zeunke bizitzaren gainean dabilela eta munduaren patuaz dabil, esango zeunke ekonomiaz egiten deuskula berba eta gutaz dabil berbaz, esaten deusku literalki aitu ezin daitekezan moduak erabiliz: "diren zentral guztiek daukate zeinek bere historia/ bere istripuak bere ahuldadeak eta argi aldiak/ latentzia fase luzeak ere izaten dira/ urteak eta urteak sentimendu edo ekintza bat umotzen". Euskal Herrian idatzitako ahapaldiok noranahikoak lirratekez ez balira sano gureak, makrokosmos bat osatzeko gai

da-eta azpeitiarra hankak herrian jarrita. Lirismoa eta errealismoa biak bat diran poemakaz betidanik harritu bagaitu, oingoan be Otok mobidu deuskuz barruak. Sinboloa darabil gauzak definituteko, gauzak dira sinbolo onena askotan: "behin bederen pertsona orok/ behar luke itsutu adiskideen ekiaz".

Disoluzio agiriak dira historia-
ren urak eroan eta ibar barrieta-
tara dekantetan diran lupetzak,
hautsak eta polena. Dana ez zan
eder izan, dana ez zan justua izan:
"miseria askotan badut nire parte/
eta baritonoaren gangarrez abesten
diot bakeari". Garai barriak joandakoak
zelan txirikordatzen diran eta gero
mataza hori askatzea zenbat kostetan
dan kontetan da hemen. Ez da gai
erraza, errazera jotzen dan arren
askotan komunikabideetan, parlamentu-
etan eta baita literaturan be.



Jose Luis Otamendi

Disoluzio agiriak

Susa, 2019

Igor Estankona 119 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Zezeilaren 25tik martiaren 3ra
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 4tik 10era
Zamaltoa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 11tik 17ra
N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atubxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

22:00etatik 09:00etara
Gutierrez. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan
22:00etatik 09:00etara
Cometza Ana. Francisco Kortabarría 2. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74
Igorre: 94 600 74 63
Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 38 50 14
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15
Gorbeialde
94 631 55 25 / Faxe 94 631 01 01
Parketxea 94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea
94 673 62 51
Gorbeialde Irratia
94 631 52 90
Euskotren 902 543 210
Areatzako Notariotza
94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.
Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.
Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.
Orduro: 05:45etik 21:45era.
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo
Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.
Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao
Lanegun eta zapatuetan:
Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.
* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzeako Ugao. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
Ugao-Zeberio
Lanegun eta zapatuetan:
Ugaoetik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30, 19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao
Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.
* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea
Lanegun eta zapatuetan:
Ugaoetik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.
Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermibarri-Arrigorriaga
Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriaga-Ermibarri
Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11 Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30etan.
Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioakorik ez dago.

Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.
Publizitatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Epebako/Epelarreko



Gaur egun pazientzia berbea zabal-zabal badabil be, epe berbeagaz sortutako bi berbok erruz erabilten ziran lehenago. Zeozer ondo egiteko behar dan denporeari, etxoteko gaitasunik ez daukanari, edo dana arin-arinka egin gura dauanari epebako esaten jako (epebákoa ahoskatuta). Epebako berbea baiezko esaldietan erabilten da gehienbat. "Larrituta dabil, epebako hutsa dalako!". Ezezkoetan oster, epelarreko esaten da gehiago: "Umeakaz egoten diranean ez dira epelarrekoak izaten gaur eguneko aita-amak".

ERETXIA

Zaintza barik ez da nire iraultzea

Martiaren 8an, greba eginaz, androk kaleak hartuko doguz barriro be bizitzak erdigunean ipini gura doguzalako. Zaintza(k) alkarbizitarako elementu sano garrantzitsua danez, lan horreek baloretea, bere garrantzia politikoa emon eta beste modu baten antolatu behar dirala aldarikatu gura dogu, besteak beste.

Danok, modu batean edo bestean, ondoizate (fisiko, psikiko eta emozionala) bermatzeko edo hobetzeko zaintzaren premina daukagu. Hau da, guztiak gara zaurgarri eta interdependienteak eta hori dala eta, zaintza barik ez goaz inora.

Zaintza niretzat oso aspektu zabala da eta persona nagusi bat edo ume bat zaintzeaz harago doana. Beste batzuen artean badagoz: militatzen dogun taldea eta proiektuaren zaintza, kuadrillaren zaintza, familiaren zaintza, gaixorik egon daitekezan lagunen zaintza, bikotearen zaintza, ingurumearen zaintza eta, zelan ez! norberaren zaintza.

Zaintza(k) norabide bietan gauzatu daiteke, intensidade eta maila desbardinetan. Alde bate-tik, ekintza produktiboai begira: taldeko bileretarako hamaiketako eroanez, umeari fardelak aldatzen, gaixorik dagoan lagun horrerri janaria prestatzen... bestalde, emotibidadeagaz loturea daukan zaintza dago eta bestea baino ikustezinagoa da. Adibidez, kariñoa, babesa, laguntza morala, besteaz arduratzea...

Norabideaz gainera, kontuan hartu behar doguz zaintzaren argi-ilunak be. Nahiz eta zaintza(k) oso aspektu positiboak ekarri daitezkan, gehienbat daukagun gizartearen antolaketegaitik, alde txarrak be ekarri ahal ditu: sakrifizioa, desbardintasunak, podere hartu-emonak, batzuen larregizko lan kargea, ardurak, esplotazio laborala, zaintzailaren zaintza ahaztea...

Eta argi daukat nor dan zaintzen dauan subjektu nagusia. Hau da,



PILI ALVAREZ MOLES
Noka talde feministako kidea

suetan kapitalismo basati honetan bizirauteko. Hau da, gune eta une guztietan presente egotera eta lasai eta pozik bizitera kontradikzino honegaz. Aldi berean, gaur egungo gizonak ez dira hainbeste aldatu zaintza(k) behar dan beste baloretako eta honegazko ardura, personal, sozial eta politikoa hartzeako.

Baina ez da bakarrik heteropatriarkadua eta kapitalismoa; horreek kolonialismoa daukie aliadu nagusizat eta esplotazio ekonomikoaren bidez, andra migrante asko, gure nagusi, ume eta etxeko zaintzara bideratuten ditue.

Honen inguruan Euskal Herriko Mugimendu Feministak egiten dituen aldarriak honek dira:

- Bizitzaren sostengurako ezinbestekoak diran lanen aitortza politikoa eta soziala.

- Etxeko enplegua, balioa, aberatasuna eta ondoizate soziala sortzean dauan jarduera ekonomiko moduan aitortzea.

- Sektore honetako kontratazioan podere publikoen esku hartzea: kontratazio agentzien kontrolerako, lan baldintza duinak ezartzeko (lan inspektzio eta neurri eraginkorren bitartez) eta lan osasuna bermatzeko.

- Lan araututik kanpo emakumeak* egiten dituen enpleguak lan eskubideez eta negoziazio kolektiborako tresnez hornidu.

- Etxe barruko langilearen figura desagertzea. Esklabutza forma modernoa da eta.

- Bizitza kalidaderako beharrezkoak diran lan jardunaldi egokiak; bizitza personala eta lan bizitzaren buztarketea ahalbidetuz daben benetako konziliario neurriak eta erantzunkidetasun sozial erreala.

- Zaintzarako eta menpekotasunari arreta emoteko euskal sistema publikoa: zerbitzu sozial, publiko, dobakoa eta unibersala.

Laburbilduz, bizitzak erdigunean ipinteko eta zaintza lanak andregan bakarrik ez jausteko, gizartearen egitura eta antolaketan sozioekonomikoa zuztarretik eraldatu behar da eta horretarako Euskal Herriko Mugimendu Feministak burrukan gabil.

gagozan gizarte heteropatriarkal honetan androk gara, orokorrean, lan horreek aurrera erosten doguzanak eta ez da kasualidadea. Horretan hezi eta sozializatu gaituelako. Zaintzaren ardura izatea eta behar horren sakrifiziotik satisfakzioa lortzen erakutsi deuskue, baina era berean, behar sozial eta ekonomikoengaitik parte hartu behar izatera be hezkuntza, enplegua eta politikoa diran proze-

BATZ 50 urte
BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)
IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

LUMATUTEN



RAFA UGALDE

"Razone la respuesta"

Mutikoa nintzala Zornotzako Karmelo ikastetxean ikasi naban. Ikasgaiak buruz ikasi eta azterketako itaunai erantzuten irakatsi euskuen. Ikasturte baten, nik hamabi urte inguru nebazala irakasle barri bat etorri zan, fraile karmeldarra; geografia eta historia irakasten euskuzan. Baina irakatsi euskun gauzarik handiena hauxe izan zan: azterketetan itaunen amaieran, parentesi artean "razone la respuesta" ipinten euskun. Nik haregaz egin genduan lehenengo azterketan esaldi hori aitu ezin, eta itaundu egin neutsan "Aita! zer da *razone la respuesta*?"; eta erantzun eustan "ba... zergaitia azaldu behar dozula".

Azken baten, esaten doguna ez dala nahikoa, esaten doguna zergaitik esaten dogun argitu behar dogula, azaldu, errazoitu. Hori joan dan mendean izan zan, eta oraindik orain, XXI. mendean, komunikabideetan

berba egiten daben politikoak, arduradun erlijiosoak, zein izen handiko erakundeetako ordezkariak; hau da, hainbat jenterengana ailegetako modua daukien poderedunak ez dabez errazoitzen esaten dabezanak. Bestela esanda, *no razonan la respuesta*. Horren adibide dira, besteak beste, azken asteotan entzun doguzan honeek:

1.- "*La eutanasia es un mal moral y un atentado a la dignidad de la persona*" (apezpikuak).

2.- "*Es inadmisibile apelar a una supuesta democracia por encima del Derecho*" (Felipe VI).

3.- "*Los votantes van a saber elegir entre la igualdad de derechos o el caos; entre la ley o la impunidad de los golpistas*" (Pablo Casado).

Ez badabe tontoentzako berba egiten, argitu egin beharko leukiez honakoak:

1.- Eutanasia zergatik da "*mal moral*" eta "*atentado a la dignidad*"? (*Razone la respuesta*)

2.- Zer da "*supuesta democracia*" eta zer "*Derecho*" dago demokraziaren gainetik?

3.- Zer da "*igualdad de derechos*" eta zer "*caos*"? (*Razone la respuesta*).

Azalpen horreek emotea litzateke errazoitzea, jente normalarentzat berba egitea. Azalpenik emoten ez dauanak manipulazioaren labirintoan sartu gura gaitu. Kontuz!

ZERTZEAN



KATTALIN BURGOA URRUTXUA

Gaia jarrita: "Emakumea"

1

Gona jantzi du, ta kuleroak ez ikustea desira, hamar bat urte ta berriketan pipak jaten ari dira mutilak dabiz harrapaketan neskak han daude begira zer gertatuko zan elkarrekin jolastu izan balira?

2

16 urte lehen aldia noala diskotekara, aitak esan du ezpan hoiekin baina nora joango zara? Dantzan gustora ta bapatean ipurdiko batek danba! Baina lagunek esan didate lasai hori normala da.

3

20 urtekin gura ditugu heteroaruak apurtu ordea beste zapalkuntza bat beharko dugu pairatu jende aurrean askatasuna izan dutenek onartu "normala" ez denaz txutxu-mutxuka askotan dute bukatu.

4

Euskal kantetan be igartzen da berdintasuna badala, gazte-gazterik alaba saldu Atharratzeko salala. Baina hori bai, nik maite zaitut loriak ihintza bezala, ta gero Pello Joxepen haurra andreak zaindu dezala.

5

Nola liteke pertsona baino lehenago izatea ama ume zaintzaile, garbitzailea ta sukaldaria dana eskubideen kontu hoiekin sortzen ari garen drama baina ez zoratu, etxeko andrena ez da benetako lana.

6

Patriarkatua suntsi dezagun hasi behetik ta gora, mundu matxista hau salatzeke irtengo gara kanpora. Jakin borroka feminista ez dela pasako den moda, emakumeok gelditu ezkeru mundua geldituko da.

BEGI TXINDORRA

Zeizilaren 20a ez zan edozelango eguna izan Areatzan. Auzokide batek berrogeta hamar urte beteten ebazan. Horraino, dana normal. Baina auzokide hori Jesus Prieto "Txus" zan. Eta Txus ez da edozelango auzokidea. Dan-danok ezetuten gaitu eta guk bera. Hain da holan ze, aspaldi genkian berebiziko ilusinoa egiten deusala txu-txu trenean ibiltea. Holan esan deusku dozenaka bider, eta ikustekoa da pozarren doanean edozein jaitan. Horrexegaitik ebatzia hartu zan oparia egiteko. Bote bat Motxon Txusek txu-txu trena euki egian. Apurka-apurka, jarri zan kopurua lortu ez eze gainezka egin eban diru eskariak. Eta hau holan izanda, arrasti osoko jaia antolatatu zan: 16:00etatik 18:00etara, txu-txu trena, gero txokolatea. Pintxo potea ostean, eta amaituteko bolandera zaparradea. Hurrengo urterako zeozertxo itxita, amaiera ederra emon jakon jaiari.

Herri osoko jaia bihurtu zan Txusen 50. urteurrena, danok apurtxo bat Txus, eta apurtxo bat ume barriro bihurtu ginaneko eguna.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zabalde 101
R.F.S. 21/06

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com



ARRATIA

Mozorroak eta umorea Aratusteetan

Martiaren lehenengo egunetan ospatuko dira

Aratusteak. Herri gehienetan, hilaren 1 eta 2an; Bedian barriz, martitzen karnabal eguna ospatuten dabe. Egun horreetan, kolorez eta mozorroz beteko dira kaleak, eta desfileak, eskoletako mozorro jaiak, bazkariak eta musika emonaldiak hartuko dabe protagonismoa.

Kultura eta kirol emonaldi askotan, mozorrotuta joatera konbidatzen ditue antolatzaileak, Arteako kontzertura edo Areatzako AKKBren bazkarira, berbarako.

Erredakzinoa

Martiak 1 eta 2, bariku-zapatuan ospatuko dira Aratusteak herri gehienetan. Egun biko egitaraua antolatu dabe Igorren eta Lemoan. Artean, Diman eta Zeberion barriz, barikuan ospatuko dabe jaiak eta Areatzan 2an. Bedian, hilaren 5ean, martitzen karnabal ospatuko dabe. Bezperan umeak inauterietako tailerrak izango ditue ludotekan.

Martiaren 1ean, barikuan, Arteako eskolan Inauterietako ikuskizuna egingo dabe, 15:00etan. Gaubean, 20:30ean, Zazkel taldea egongo da Herriko Bentan eta jentea mozorrotuta joatera animetan dabe antolatzaileak.

Diman be, barikuan izango dira Herri Inauteriak. Arrastiko 19:00etan hasiko dira desfile bat egiteko eskolatik urtenda. Ondoren, 20:00etan, herri afaria egongo da eskolan, eta 21:00etan, bin-

goa. Erromeria bategaz amaituko dabe eguna, 22:00etatik aurrera izango da. Mozorroen aurtengo gaia: K letrea izango da.

Zeberion be martiko lehenengo egunean ospatuko dabez Aratusteak. Austarri Kultur Elkarteak antolatuta, 20:15ean diskofesta hasiko da Xaiborren eskutik, plaza aterpean.

Areatzan, martiaren 2an, AKKB Areatzako Kultur eta Kirol Batzordearen eguna be ospatuten dabe. Egun horretan, 09:00etan, Lamino Kirol Klubak Upo inguruetatik hamar kilometroko mendi ibilaldia antolatu dau. Ondoren, mozorroak soinean, 15:00etan, babajana egingo dabe hotelean. Musika barik ez dagoanez jairik, 17:00etan, Dominguez mariak egongo dira eta 18:30ean, Rober eta Idoiaren trikitixak lagundutako poteoa egingo dabe.

Arantzazun, domekan ospatuko dabez karnabalak, Arrastiko



17:30ean, kalejirea egongo da frontoian hasita. Gero, 18:00etan, Herriko Tabernan Ogi Tostada Lehiaketea eta 18:30ean, txokolata eta bizkotxoak hurreratzen diran guztientzat.

Egun biko egitarauak

Igorren eta Lemoan, jaialdiak egongo dira bariku eta zapatuan. Igorren, barikuan, 17:00etatik aurrera, Guraso Elkartearen eskutik jaialdia egongo da; bertan Ismael Pereira "Isma" izango da DJ lanetan, eta txokolata bananduko deutsee gurasoak bertarautukoai.

Barikuko jaiak batez be txikirenei zuzenduta badago be, hurrengo egunekoan edade guztietako igozketarak hartuko dabe parte. Jaiak, 12:00etan hasiko da, 105eko aparkalekutik kalejireagaz. Herri bazkaria be egongo da ondoren, Arratiko Zekorrek Rugby Elkarteak antolatuta, eta 17:00etan, mozorro desfilea.

Bertan kuadrillak, familiak eta norbanakoak hartuko dabe parte eta mozorrorik onenak saria izango dau. Arrastiko 18:00etan, hasiko da erromeria Jokaldi taldeagaz eta mozorro sari banaketean.

Lemoan be, barikuan eskolaumeak ospatuko dabe batez be eta zapatuan herri osoak. Barikuan, 10:00etan, gurasoak txokolata bananduko dabe eskolan eta 11:30ean, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatutako eskolako mozorro festari ekingo deusie kiroldegian. Gaia, emozinoak izango da.

Hurrengo egunean, 17:00etatik 20:00etara, Udalak antolatutako Haurrentzako Inauteri Festa egongo da kiroldegian. Bitartean herrian, Lemoako Jaietako Garsu Elkarteak antolatuta, 19:00etan, Inauterietako poteo musikatua eta kopaua izango dabe Herra-dura tabernatik hasita. Partaideak mozorrotuta joatera konbidatzen diute antolatzaileak, mozorro ori-

ginalenak saria izango dau eta. Gainera, parte-hartzaileentzat kopaua egongo da anbulatorioko aterpean. Jaiari amaierara emoteko, 23:00etan, erromeria egongo da Zirkinik bez taldeagaz Karabie Gaztetxean.

Martitzen karnabal ospatuko dabe Bedian

Martiaren 5ean da martitzen karnabal eta egun horretan ospatuko ditue Aratusteak Bedian. Arrastiko 17:30ean izango da gura daben herritar guztien mozorro desfilea. Bertan parte hartzeako izen emotea 17:00etatik 17:30era izango da eta photocall-a be egongo da, mozorroak argazki dibertigarriak egiteko. Desfilearen ostean, 18:00etan, Kili Kili Punk taldeak musika zuzenean eskainiko dau eta 19:30ean, txokolata bananduko da.

Bezperan, 17:00etan, Inauterietako tailerrak egongo dira ludotekan.

LEMOA

Cementos Lemonako bulegoak Lemoara ekarriko dabez

Erredakzinoa

Egoitza soziala Bilbotik Lemoara 2018ko abuztuan aldatu eban Cementos Lemonak eta zerbitzuetako bulego zentralak Lemoara ekarteko lanean dihardue. Horretarako lehengo janlekua bota eta eraikin barri bat egiten laster hasiko dirala dino Elena Guede fabrikako zuzendariak. Udagoienerako bulegoak Cementos Lemonan egotea

aurreikusten dau.

Eraikuntza krisia larrienean egoanean, 2013n, CRHk (Cemental Roadstone Holdings) Cementos Lemoa erosi eban eta orduan sortu zan bulegoak Lemoara ekarteko idea. "Espero genduan baino gehiago kostau jaku, baina atzenean ekin deusagu eraikina egiteari. Eraikin txikia izango da, bertan 12 lagunek egingo dabe behar" azaldu deutso BEGIRURI

zuzendariak. Orduan, Finantza, Merkataritza, Giza baliabideak eta Administrazioa, Zuzendaritza Orokorra eta Informatikako departamentuak fabrikearen esparruaren barruan izango dira. "Danok alkarren ondoan egoteak sinergia barriak sortuko ditu eta balio handiagoa emongo deutso gure jarduerari" dino Guede.

Elena Guede

Elena Guede, Ingenieria Kimikan doktorea, Cementos Lemonako fabrika zuzendaria da atzenengo 6 urteotan. Cementos Lemonan 120 behargin inguru dagoz. Guede, oin dala 24 urte hasi zan Cementos Lemonan beharrean.



Elena Guede.

CRH multinazionalak 100.000 langile inguru ditu munduan zehar.

Batez be Europa eta Ameriketara, egin eta saldu egiten dau porlana.

AREATZA

Asier Garcia Artetxe izango da EH Bilduren alkategaia maiatzeko udal hauteskundeetan

Erredakzioa

Oingo Areatzako alkate dan Asier Garcia, EH Bilduren alkategaia izango da udal hauteskundeetan. Alkategaia aukeratzeko EH Bilduk abenduan egindako barneko prozesu partehartzailean hautagai bakarra izan zan.

Asier Garcia 43 urte ditu. Ekonomian lizentziatua da eta goi mailako musika irakaslea, perkusioan espezializadua. Gaur egun, Bilboko Udal Txistu Bandako perkusionista da.

Garcia, oin dala 4 urte hasitako bidea sendotuta gura dau. "Areatzako Udala erakunde partehartzailea, gardena, profesionala

eta hurbila bihurtzea; eta, biztanleriaren beharrian erantzuten dakian administrazio hurbil bat sortzea. Arlo desbardinetan hobekuntzak egin doguz: Udal antolaketan, komunikazioan, kultur programazioan... aurrekontuak jagokienez, horreek egiteko prozesu barria ipini dogu martxan eta garapen ekonomikorako beurratsak emon dira", dino Garcia.

Zinegotziak martian

Areatzako EH Bilduren hauteskunde zerrenda osotuko dabenean personak proposatuteko eta izentatzeko prozesu parte hartzailea martian egingo da.

ZEBERIO

Aurrekontuak onartu ditue

Erredakzioa

Zezeilaren 18an onartu ebezan Zeberion 2019ko aurrekontuak, EAJ-PNVren aldeko eta EH Bilduren kontrako botoak. Aurten 1.475.710 euro izango ditu Udalak, igaz baino 115.000 euro gehiago. Aurrekontuak egiteko herritarren eskariak hartu dirala kontuan dino Unai Larrabide EAJ-PNVko zinegotziak.

Jeltzaleentzat, aurten egingo diran inbersinorik garrantzitsuenak Zubialdeko lanak eta bideen konponketak izango dira. Zubialden zoladura barria ipini eta jolaslekua handituteko dirua dago. Bideai jagokienez, auzo-bideak hobetu eta Egitik Elizondorako

bidea konponduteko partidak dagoz. Baita Arkulandan espaloia eta eukiontzia gunea egokitutuko be.

Memoria Historikoa berreskuratze proiekturako be dirua dago 2019ko Udal kontuetan.

EH Bilduk ezezko botoa

EH Bilduk ezezko botoa emon eban, batez be, ez daualako "konpartiduten politika egiteko modua". Izan be, Aitor Urieta zinegotziaren arabera, "alkate profesional bat eukiteak, parte hartze kontzeptua aldatu egin dau" eta parte hartzea eskasa dala, eta euren proposamenak ez dirala kontuan hartzean aurrekontuetan dino EH Bildukoak.

tzeko helburua dauka. Bere programea egiteko, herritarrek deitu ditu martiaren 2an, 10:30ean, Elizalde aretora.

Plataformeak Diman egin dan politika modua aldatu eta herritarren eta Udalaren arteko hartu-emonak erraztea gura dau, "herritarren politika egiteko beste modu bat be badagoalako". Plataforma honen asmoa, "udalerriko beharrian kontuan hartuta, eta ez elango bazterkeriak barik, guztion ondoizatea lortzeko ekintza desbardinak bultzatuko dituan programa bat egitea da".

DIMA

Dime Aukeratu plataformea sortu dabe

Erredakzioa

Dime Aukeratu izeneko plataformea sortuteko ekimena abiatu dabe Diman. Herritarrez osotutako plataformea izan gura dau eta Udalean persona independenteen ordezkaritza bat lor-

ARRATIA

Larogeta hamabi umek emon dabe izena Gurutze Gorriaren Alkarregaz egitasmoan

Arratiako Gurutze Gorriaren Alkarregaz egitasmoak Lehen Hezkuntzatik DBHra doazen ikasleak etapa aldaketa horretan laguntzea eta Arratiako nerabeen arteko hartu-emonak sortzeko jaio zan.



Alkarregaz egitasmoa gazteak Arratia Institutuan.

Erredakzioa

Urtailean abiatu zan bosgarren edizioa eta proiektua egonkortzen eta sendotzen doala dino Arratiako Gurutze Gorriakoak. Arratiako "copyright" daukan proiektu hau begi onez begiratzen dabe ikasleak, irakasleak eta gurasoak.

Hasikerako helburuari lotuta segiduten dau egitasmoak. Urtailean hasita, maiatzera arte, hileko atzenengo zapatuan, hurrengo urtean DBHn hasiko diran umeak, Arratiako Gurutze Gorriako teknikari eta boluntarioak egoten dira alkar ezetuten eta euren ikastetxea izango dan espazioaz jabetzen.

Lehenengo saioan, institutuko zuzendariak emon eutsen ondoetorria. Lehenengo hiru saioetan, "alkar ezetu eta institutua ezetuteko jolasak egiten doguz. Nahastu, taldeak sortu dinamika bat egiteko eta gero sortzean dan taldea desegin eta beste talde bat egiten da beste dinamika bat egiteko" azaldu deutso BEGITU Idoia Zuloaga Arratiako Gurutze Gorriako Eskuhartze Teknikariak. Aprilean, egunpasa Bermeora joango dira, itsasoko Gurutze Gorria ikusten eta maiatzean, Barriara astegoi-pasa.

Lagun taldea Arratian

Lemoako sei garren mailako umeak, Lemoan geratzen dira DBH egiten, baina parte hartzean dabe Alkarregaz-en. Aisialdirako Arratiako lagunak egitea da helburua.

Zeberioak aurten ez dabe par-

te hartu. Ointsu arte, Arratia Institutura joaten ziran DBH egiten baina oin Ugao eta Arrigorriagarantza jotzen dabe. Ainhoa Petralanda Gazte Teknikariaren ustez, Arratiagaz hartu-emon hori galtzea pena da. Proiektuaren helburuetako bat, gazteak aisialdian Arratiagaz daukien loturea mantendutea da eta.

Arratiako copyright-a

Proiektua Arratiako beharrian bateri erantzuteko sortu zan eta Arratian baino ez dala egiten dino Zuloagak. Gurutze Gorriak ez dauka holango proiekturik beste inon.

Ez dauka aurrekonturik eta aurrera aterateko boluntarioen laguntzea izaten dabe. Urtekerak guztiak, garraio publikoan egiten dabez, Barik txartelagaz. Bermeora, berbarako, Lemoan trena hartuta joango dira. Maiatzeko aste-

goien-pasak 50 euroko prezioa dauka, jatordu guztiak barne. Baina dirua ezin da atxakia izan ume bat esperientzia hori barik geratzeko eta hori pagetako zailtasunak euki ezker, erraztasunak emongo dituela dino Eskuhartze Teknikariak.

DBHra saltoa leundu eta lagunak egiteaz gainera, Alkarregaz-en baloreak landuten dira: euskera, gizon eta andren arteko aukera bardintasuna, alkarregazko errespetua, eta abar.

AVIAGaz hitzarmena

Arratiako Gurutze Gorriak eta AVIA enpresek hitzarmena sinatu dabe anbulantzia bat finantziatuko. Anbulantzia barri honeguz zerbitzu prebentibo gehiago emon ahal izango ditu Arratiako Gurutze Gorriak.



Kepa Etxebarri AVIAko ordezkarria eta Juan Mari Aizarna Gurutze Gorriakoak.

ARRATIA

Europako bost herrialdeetako baserriarrek inguruko baserriak bisitatu ditue

Zezeilaren 12tik 14ra, Via Campesinaren Europako koordinazio barruan dagozan sei erakundek, tartean EHNE Bizkaia, topaketak egin ebezan agroekologia hobetuteko prozesu bat hasteko helburuagaz.

Erredakzioa

Noruegako NBS, Italiako Ari, Frantziako Confédération Paysanne, Rumania Eco Ruralis, Belgikako Map eta EHNE Bizkaia dira erakundeak. Mundu osoko berrogei baserriar inguruk Arratia eta Zeberio hainbat ustiapen bisitatu ditue.

Proiektu honen helburua nekazaritza iraunkorra, agroekologia eta, inguru horretan he-

rialde horreetako baserriarren esperientziak alkartrukatzea dala azaldu deutso BEGITURI Alazne Intxauspe EHNE Bizkaia kideak. Lehenengo topaketea Bizkaian izan da eta gero Belgikara, Errumaniara, Italia eta Frantziara joango dira proiektua landuteko. "Leku bakotxean gauza bat ikusiko dogu". Bizkaian, marko orokorra landu dabe eta beste herrialdeetan gai bana hartuko dabe aztertuteko.

Lorearen metodologia eta diagnostikoa

Proiektuaren lehenengo saioan, Bizkaiko bost etxalderen diagnostikoa egin eben. Iurretako bat, Larrabetzuko beste bat, Mallabian hirugarrena, Arteako Aner Mimentzaren baserria eta Zeberioko Nadia Ayuso eta Mar Garroterren Maskilu konserberearen kudeaketearen diagnostikoa, hain zuzen be. Diagnostikorako, iparraldean garatutako "lorearen metodologia" erabili eben. Loreak sei petalo ditu eta petalo bakotxak arlo bat aztertzen dau: autonomia, transmisinogarriratsuna, lekuko garapena, banake-



Europako baserriarrek Artean.

tea, kalidadea eta natureagazko lana. Beste arlo edo petalo batzuk gehitzea be proposatu eben Europako baserriarrek; generoa, berbarako.

Lan teorikoa amaitutakoan, Arteako Herriko Benta eta Zeberioko Arezandiaga auzuneko Larizgoitia negutegiak ikustera joan ziran topaketako partaideak. "Oin, hemengo esperientziak ikusten goaz. Arteko Herriko Bentako proiektua, produkzioaz aparte, guretzat alde sozialak be garrantzia handia daukalako, eta Zeberion zelan modelo intensibo batetik eredu iraunkorrera eta agroekologikora pasatu diran ikusiko dogu".

AREATZA

Maitasunaren mitoak aztertuko ditu Josebe Iturriozek

Erredakzioa

Andren Jabekuntza Eskolearen programearen barruan, Josebe Iturriozek *Maitasun erromantikoa vs maitasun askea* ikastaroa dago. Eskolak martiaren 16an, barikuan, izango dira 17:00etatik 20:00etara eta 17an, zapatuan, 10:00etatik 13:00etara, Areatzako Udal Aretoan. Izena emateko atzen eguna martiaren 9a da.

Ikastaroan, partaideak maitasun erromantikoren mitoak aztertuko dabez. Ikastaroaren helburua maitasuna desmitifiketea da, andra eta gizonen arteko desbardintasunari egiten deuskan ekarpena gainditzeko. Modu kolektiboan hurrengo itaunai erantzuten saiatuko dira: "jarraibide komun batzuk dagoz maitasun hartu-emon guztietan? Ze beste hartu-emon mota existiduten dira?".

LEMOA

Lemoak ariketa fisikoa sustatuko dau Oingabiz Programeagaz

Zezeilaren 13an, aurkeztu eben herritarren ohitura osasungarriak eta jardura fisikoa sustatzeko helburua daukan Oingabiz Programea. Oingabiz Eusko Jaurlaritzako Mugiment egitasmoaren barruan dago.

Erredakzioa

Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak aurkeztu eban Oingabiz Programea. "Lemoan kirola eta ohitura osasungarriak bultzatzea, Udalaren proiektu estrategikoan dagozan kontu bi dira" esan eban. Proiektuak Lemoako Osasun Zentroaren eta bertako medikuen kolaborazioa dauka. Medikuek Oingabiz erabilera bideratuko ditue gaixoak, gaixotasun askok hobera egiten dabelako jardura fisikoagaz.

Proiektura jotzen dabenak, orientatzaile baten laguntza izango dabe, eurentzako egokienak diran jardura fisikoak egiten hasteko eta prozesuan lagunduteko. Konsultan, kasu, persona eta egoera bakotxaren balorazioa egingo dau orientatzaileak eta plan bat

planteauko deutso, jarraipen personalizauagaz.

Konsultea Lemoako Kulturgu-



Lemoako alkatea, Jaurlaritza, Aldundia eta Oingabizeko ordezkariak.

nean dago eta debaldeko zerbitzua da. Ordua alde aurretik hartu behar da oingabiz@lemoa.net helbidera idatzita edo 94 631 30 05 telefonora deituta.

Erakundeen arteko kolaborazioa

Aurkezpenean, Gorka Mutuberria, Eusko Jaurlaritzako Mugiment proiektuko Idazkari teknikoa, Xanti Perez Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta Kevin Huber Lemoako Oingabiz proiektuko orientatzailea be egon ziran. Perezek erakundeen arteko kolaborazioa azpimarratu eban, bere ustez, sano inportantea da proiektu honetan Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Osakidetzak alkarlanean jardutea.

IGORRE

Hogei euro pagau eta hogetabost gastetako kanpaina Igorren



Erredakzioa

Martian zehar, herriko merkataritza bultzatzeko helburuagaz, 1.000 bono-denda egongo dira salgai. Bonoak 20 euroko prezioan erosi daitezke Sabadell bankuan. Persona bakotxak gehienez hiru erosi ahal izango ditu. Bonoak, 25 euroko balioa izango dabe kanpaina parte hartzean daben Igorreko dendetan. Horretarako Udalak 6.000 euroko diru laguntza emon dau, 1.000 euro AMEri gestioetarako eta 5.000 euro salgai egongo diran bonoetarako.

Martiaren 1etik 8ra arte igorrez-

tarrak bakarrik erosi ahal izango ditue bonoak, hilaren 11tik aurrera jente guztientzako egongo dira salgai.

Bonoak hurrengo dendetan erabili ahal izango dira; Ainara Kirolak, Amalur Igorre, Arratek, Batzokia, Beasko, Beatriz Fruta-denda, Deco-ración y Pintura Igorre, Dia Autozerbitzua, Expert Arratia, Galanta, Gau Lora Taberna, Iratxo Oinetakoak, Kantabriko Arraindegia, Kili Kili, Klitz, Lorane, Maran Kirolak, Muebles Igorre Altzariak, Mugarri, Olætxe Optika, Orrie Paperdenda, Pino Fruta-denda, Politte, Rekalde Hara-tegia, Sein eta Zazpi Haizetara.

MARTIAREN 8A

Greba feminista eta hainbat ekitaldi beste gizarte eredu bat aldarrikatzeko

Martiaren 8an, *Heteropatriarkatu kapitalistari planto!* lemapean, Euskal Herriko Mugimendu Feministak deitu ditu andrak greba feminista egitera. Arratian, konzentrazioak, manifestazioa eta hainbat ekitaldi egingo ditue greba egun honetan.

Mendi martxea, antzerkia, zinea, berbaldiak eta beste ekitaldi askok osotuko dabe martiaren 8aren inguruan Arratiako talde feministak, andra taldeak eta erakundeak antolatutako programazioa.



Erredakzioa

Mugimendu Feministek greba modu barri bat sortu dau. Izan be, greba honetara andrak dagoz deituta eta eurentariko asko lan baldintza prekarioetan, zaintza lanetan edo enplegu barik dagoz. Egoera horreek ikusgarri egitea be bada grebarean helburua

eta egoera horreetan dagozani grebara lotzeako aukerea emoten deutse. Hori dala eta, parte hartzeako moduak desbardinak izan daitezke leku batetik bestera edo-eta egoera desbardinetan. Protagonistak ebatzen dabe zelan parte hartu. Greba babestura daben gizonai barriz, etxeko eta zaintza lanez arduratzeko es-

katzen deutse Mugimendu Feministek.

Manifestazioa Igorreko Kultur Etxetik abiatuko da 12:00etan. Hara joateko zutabeak egingo dira Arratiako herrietatik. Bedia eta Lemoako zutabea, Igorreko eleiza azpiko parkinean batuko da Kultur Eterantza joateko; Dimakoa, Batz enprearen on-

Zeberion be, *Heteropatriarkatu kapitalistari planto!* lemapean konzentrazioa egingo dabe plazan 10:00etan; ondoren, pikete informatiboak egiten ibiliko dira Ugaon eta 14:30ean, bazkaria egingo dabe eskola zaharrean. Bilboko manifestaziora joateko, 18:08an daukie hitzordua Ugaoko tren geralekuan.

Martiaren 9an, Arratiako Andren Mendi Martxearen IX. edizioa izango da. Oingoan, Baltzolako kobetara joango dira, Dimako plazatik 10:00etan urtenda. Ibiltariak plazatik Artabera joango dira; handik, Bargondiarra, Baltzolarra eta Indusitik barriro plazara. Guztira 7 kilometro inguru. Amaitutakoan kopautxoak egingo da herriko frontoi txikian.

Andrak protagonista diran zinea, antzerkia...

Urtero lez, Arratiako andra taldeak, talde feministak, Udalak eta AUMk kartel bateratua antolatu dabe. Kartel honetan herri bakoitzeko ekintza bat dago, baina herri gehienetan, ekintza gehiago

doan; Zeanuri, Areatza, Artea eta Arantzazutik doazen partaideak Arantzazun dagoan Montero jatetxean batuko dira. Manifestazioaren ostean, txapak eta photocall-a eta 14:30ean, bakotzak eroandakoa alkarregaz bazkalduko dabe. Kantaldia be egongo da bazkalondan.

Bazkalostean Diman, konzentrazioa egingo dabe plazan 17:30ean eta Bilboko manifestaziora joango dira. Egun horretarako, Igorren, Xake Produzioak antzerki taldearen *Lur* antzezlanaregoan programatuta, baina martiaren 8ko grebarean ondorioz bertan behera geratu da.

egongo dira.

Arteak eta Lemoak emon eutseen hasikerea martiaren 8aren inguruko ekitaldiak, zezeilaren 15ean Arteako Andran Gelan egin zan biolentzia ekonomikoaren gaineko berbaldiagaz eta 28an Virginia Imazen *Sex o no sex* clown ikuskizunazagaz. Programauta dagoan hurrengo ekitaldia, martiaren 1ean, 18:30ean da. Zeanuriko Kultur Etxean *Figuras ocultas* filma ikusteko aukerea egongo da. *Figuras ocultas* Theodore Melfik 2016an zuzendutako filmak kontau barik egoan hiru matematikari andrazko afroamerikarren historia kontetan dau. Katherine Johnson, Dorothy Vaughan eta Mary Jacksonen NASAn egiten eben behar 1960ko hamarkadan, espazioko norgehiagoka eta eskubide zibilen sasoiaren. Taraji P. Henson, Octavia Spencer eta Janelle Monae aktoreak egiten dabez matematikari horreen papelak.

Martiaren 5ean, 19:00etan, Igorreko Kultur Etxean, zaintza lanak aztertutako mahai-ingurua egongo da. Bertan, Maribi Ardanza ELAko Bizkaiko zahar egoitze-ko taldeko langileak, Dominique Saillard ikertzailea eta zaintzaileak eta Riosby Alvarez eta Silvia Rugamas, Trabajadoras no domesticadas taldekoak egongo dira.

Zapatuan, hilak 9, goizean mendi martxea eta arrastiko 19:00etan, Dimako eskolako ganbaran, Lakrikun Antzerki Taldeak *Non gaude?* antzezlanaren eskainiko dau 19:00etan. Lan hau trilogia baten hirugarren zatia da.

Greban gaude eta *Prest gaude* lanen jarraipena. Kartel-eko hurrengo ekintza be ildo beretik doa. Hilaren 16an izango da, 19:30ean, Arantzazuko Kultur Gunean. Han, Bea Egizabalek eta Ane Labakak *Erradikalak gara* ikuskizuna eskainiko dabe.

Martiaren 22an, ekintza bi. Areatzan, Skolastikako Josune Muñozek komikiaren munduan andren papelaren gaineko berbaldi-tailerra emongo dau eta gero, partaideak alde aurretik irakurri daben *Ondo maite nazazu* komikia aztertuko dabe. Udal Areto nagusian izango da 18:30etik aurrera. Egun berean, 19:00etan, *Emakumea euskera eta kirola* mahai-ingurua egongo da Bediako liburutegian. Bertan, Oihana Azkorbebeitia Urizar, Ainhoa Lendinez Garate eta Igone Campos Odriozola mendi korrikalariak egongo dira, euren kirol esperientziak partekatzen.

Beste ekintza batzuk

Kartel bateratuan, agertzen diranaz gainera, herri batzuetan beste ekintza batzuk be antolatu ditue. Lemoan, martiaren 8an, Zaplast talde feministeak elkarretaratzerantz deitu dau 09:45ean, Plaza Gorrian. Diman, martiaren 9an, afora egongo dabe herriko andrak Baltzola jatetxean eta ondoren jantzaldia izango dabe Kimeran taldeagaz.

Zeanurin, hilaren 15ean, Anabel Sanz FeministAldeko kideak berbal- dia emongo dau, *Denontzako feminismoa % 99rentzako* izenpean Eguzkiolan 19:00etan. Ondoren kontzertua egongo da.

Emakumea Euskera eta kirola Mahai-ingurua

Martxoak 22an
19:00etan
Bediako Liburutegian



Oihana Azkorbebeitia Urizar



Ainhoa Lendinez Garate



Igone Campos Odriozola



Igazko mendi martxako irudia.

EMAKUMEOK* GREBARA

MANIFESTAZIOA

(11:30etan zutabeak) Igorreko Kultur Etxetik - 12:00 -

Emakumeen aurkako biolentzia ekonomikoa aztergai (BERBALDIA)
Otsailak 15 📍 Arteako Andran Gelan ⌚ 18:30

Sex o No Sex (ANTZEZLANA) Otsailak 28 📍 Lemoako Gaztetxean ⌚ 19:00

Mujeres Ocultas (ZINEMA) Martxoak 1 📍 Zeanuriko Kultur Etxean ⌚ 18:30

Zer egiten dogu zaintza lanak ditugunean? (MAHAI-INGURUA)
Martxoak 5 📍 Igorreko Kultur Etxean ⌚ 19:00

Non gaude? (ANTZEZLANA) Martxoak 9 📍 Dimako Eskolako Areto berrian ⌚ 19:00

Erradikalak gara (BERTSOSAIOA) Martxoak 16 📍 Arantzazuko Kultur Etxean ⌚ 19:30

Emakumea eta Kirola (MAHAI-INGURUA) Martxoak 22 📍 Bediako Liburutegian ⌚ 19:00

Ondo maite nazazu komikia aztergai (BERBALDIA)
Martxoak 22 📍 Areatzako Udal Areto Nagusian ⌚ 18:30

Dimako herriko plazarik **MENDI - MARTXA** Martxoak 9 - 10:00 -

TXIRRINDULARITZEA

Masterrentzako txirrindularitza saria antolatu dabe Diman

I. DIMA MASTER SARIA 2019

Martxoak 2 15:30

78 Kilometroko Ibilbidea

760 metroko arrapala

Kategoriak
Master 30 - 40 - 50 - 60
Elite
Emakumeak
Emakumeak Junior

Antolatzaileak
TIRITU ZIKLISTA KIROL KLUBA DIMA

INSKRIPZIOAK 15€
www.kirprobak.com

Kartela.

Erredakzioa

Dimako Tiritu Ziklista Kirol Klubak I. Dima Master Saria antolatu dau martiaren 2rako. Lasterketea 15:30ean hasiko da eta 78 kilometroko ibilbidea eta 780 metroko desnibela izango dau. Gizonezkoetan, Master 40, 50 eta 60 eta Eliteko lasterketak jokatu dira. Andrazkoetan, Elite maila eta Juniorrak. Atzen honeek "harrobia bultzatzeko" konbidau dituela dinoe antolatzaileak. Dimako Udala eta Bizkaiko Txirrindularitza Federakundea dira proba honen babesleak.

Txirrindulariak Dimako frontoitik urten eta Zeanuriraino joan

eta Igorrera bueltauko dira. Gero, beste bira bi egingo ditue Undurragako presatik eta San Kristobalera igongo dira. Handik Biteriñora eta Dimako frontoian amaituko dabe lasterketea.

Berrehun partaide

Masterren sari hau, Arratiako txirrindularitzan egoan hutsune bat betetera dator; izan be, proba gehienak gazteentzat dira. Horregaitik entrenetan eta lehiari jarraituten daben txirrindulari nagusiak master kategoriako probak eta sariak eskatuten dabez. Lehengo Dima Master Sarian, 200 lagunek emon dabe izena eta partaide kopurua beteta dago.

ESKALADEA

Itziar Zabala Euskal Herriko Bloke txapelduna**Erredakzioa**

Itziar Zabala Zurinaga eskalataile dimoztarrak, Euskal Mendizale Federazioak antolatutako Euskal Herriko Bloke Txapelketea irabazi eban zezeilaren 16an, Iruñean. Irantzu Porres Etxebarriak eta Irati

**Itziar Zabala.**

Zabala Muxikak osotu eban podiuma. Gizonezkoetan, Isaac Estevez Vallejok jantzi eban txapela. Sailkapen probetan onena izan

ez zan arren, Itziar Zabalak ez eban hutsik egin finalean. Bera zan favorittoa eta bere maila erakutsi egin eban, txapela lortuz.

PELOTEA

Pelotari arratiarrak galdu egin ebezan euren partiduak Igorren**Erredakzioa**

Zezeilaren 16an Igorreko Udala pelotalekuan, Oier Etxebarria Aspeko pelotari igorretarrak eta Aitor Elordik Promozino Txapelketea Binakako finalurdenetako partidua jokatu eban. Lemoako Ainhoa Romero eta Dimako Amaia Aldayk osotutako bikoteak be Emakume Master Cupeko partidu bat jokatu eban Igorren.

Ez batzuek ez besteak ezin izan ebezan euren partiduak irabazi.

Etxebarria eta Elordik, Peña II. eta Arangurenen kontra jokatu eban. Markagailuak partidu estua izan zala adierazo arren, 19-22, igorretarrak eta mallabiztarrak ezin izan eban partidua irabazi.

Hurrengo domekan barriz, zezeilaren 24an, Donostiako Atano III. pelotalekuan, Oier Etxebarria Dario Gomezegaz batera, Elordi

eta Ruizek osotutako bikoari nagusitu jakon 18-13.

Oier Etxebarriak Iruñeko Labriten jokatu dau hurrengo partidua, martiaren 2an, Elordigaz batera Agirre eta Salaverriren kontra.

Alday eta Romero ez dira finalerdietarako sailkatu

Orozkon zezeilaren 24an jokatu partidua erabakiorra izan zan Ainhoa Romero eta Amaia Aldayrentzako. Igorren be galdu egin eban aurreko partidua Olatz eta Maite Ruiz de Larramendiren kontra 18-9, eta Emakume Master Cupeko finalerdietarako txartela lortzeako lera Agirre eta Olatz Arribalagari irabazi behar eutseen Orozkon, eta ezin izan eban.

MENDIA

Eguraldi txarra K2n**Erredakzioa**

Alex Txikon eta bere taldea Bigarren Kanpalekuan 6.650 metrotara egozan zezeilaren 25ean

eta eguraldia txarra zala inoan lermoaztarrak sare sozialetan.

Zezeilaren 14an heldu zan bigarren kanpalekura, ia zezeil osoa Behe Kanpalekuan pasau ondo-

ren, eguraldiak aukerarik emoten ez ebalako. Urakan bateri be egin behar izan eutsien aurre. Izotzez egindako harresi bateri esker, ez ebezan haizeak dendak eroan.

Eguraldi onik egin ez arren, domekan hilak 24, Txikonek bigarren kanpalekura igon eban, Cheppal taldekiagaz batera. Beste taldekideak hurrengo egunean heldu ziran.

Gure ikastetxeak

Euskalduna kalidazkoa herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

FUTBOLA

Tolosa puntu bakarrera

Arratiako futbol taldeak nahiko denporaldi ona egiten dabiz orokorrean. Arratia اندرازkoen A taldea bigarren postuan dago barbarako, gizonetzkoena ostera nahiko eskas dabil eta sailkapenean atzeko postuetan dago.



Arratia B taldea.

Erredakzioa

Arratiako اندرازkoen A taldeak atzen partidu biak emoitza bardinagaz irabazi ditu, 5-0 irabazi eban zezeilaren 24an Erandioko Betiko Neskak taldearen kontrako partidua, eta 0-5 aurreko astegienean Bizkerre B taldearen kontra etxetik kanpo jokatuakoa.

Datorren partidua Pauldarrak taldearen kontra jokatu dau Arratiak etxetik kanpo, martiaren 2an, arrastiko 16:00etan.

Arratia bigarren postuan dago sailkapenean 54 puntugaz 22 jardunaldi jokatu ostean Tolosa liderrarengandik puntu bakarrera.

Arratia B

Andrazkoen B taldeak jokatuakoa atzen bi partiduetatik bat irabazi eta bestea galdu dau. 2-0 irabazi eutsan Leioako Emakumeak B taldeari zezeilaren 23an eta 2-1 galdu eban aurreko astegienean Adiskideak taldearen kontra etxetik kanpo.

Datorren partidua lidertzan dagoan Ugao taldearen kontra jokatu dau Arratiak etxetik kanpo, martiaren 3an, arrastiko 17:00etan.

Arratia laugarren postuan dago sailkapenean 18 jardunaldi jokatu ostean 31 puntugaz.

Arratia gizonetzkoak

Arratiako gizonetzkoen A taldeak denporea daroa ez dauala emoitza lar onik lortzean. Jokatuakoa atzen partidu bietan puntu bakarra lortu dau. 3-0 galdu eban ze-

zeilaren 24an Urduliz A taldearen kontra etxetik kanpo eta bana bardindu eban aurreko astegienean Uritarra taldearen kontra Urbietan.

Datorren partidua Derio taldearen kontra jokatu dau Arratiak Urbietan, martiaren 2an, arrastiko 18:00etan.

Arratia hamabosgarren postuan dago sailkapenean 19 puntugaz 22 jardunaldi jokatu ostean.

Arratia B

Gizonetzkoen Arratia B taldeak azken partidu biak irabazi ditu. 2-0 Mungia Bren kontra zezeilaren 23an Urbietan eta 0-1 aurreko astegienean Padura Bren kontra etxetik kanpo.

Datorren partidua Laramendi Ikastola taldearen kontra jokatu dau Arratiak etxetik kanpo, martiaren 3an, arrastiko 15:30ean.

Arratia bosgarren postuan dago sailkapenean 42 puntugaz 22 jardunaldi jokatu ostean.

LemoaHarrobi

LemoaHarrobik 1-0 irabazi eban Mungia B taldearen kontra Arlo-nagusian zezeilaren 23an jokatuakoa atzen partidua. Aurreko astegienean ostera 4-1 galdu eban Abadiñoren kontra etxetik kanpo.

Datorren partidua Ugao taldearen kontra jokatu dau LemoaHarrobik etxetik kanpo, martiaren 2an, arrastiko 16:30ean.

LemoaHarrobi zortzigarren postuan dago sailkapenean 34 puntugaz 22 jardunaldi jokatu ostean.

ERRUGBIA

Bosgarren amaitu dau AZ Aviak ligurean lehenengo zatia

Erredakzioa

Atzenengo partidu biak galduta, bosgarren postura jeitsi da AZ Avia Arratiako taldea sailkapenean. Senior 2 maila A bere taldean, zazpi talde izan dira eta Arratiakoak 20 puntu lortu ditue, seigarren geratu dan La Unica RT B taldea legez. Sarako Izarra RTK irabazi dau ligena 57 puntugaz.

Zezeilaren 23an, etxean jokatu eban AZ Aviak, La Unica RT Iruñeako taldearen kontra eta 33-36 galdu eban. Nahikoa bardinduta egon arren, arratiarrak ezin izan eban partidua irabazi. Aurreko partidua, zezeilaren 16an jokatu

zan Bilbon, Rekaldeko kiroldegian. Han, 64-0 galdu eban Uni Bilbao Rugby B taldearen kontra.

Ligurean bigarren zatian beste talde batzuk izango ditu aurkari Arratiko Zekorrek-ek. Izan be, multzo barriak egiten dira bigarren zatirako, sailkapenaren arabera.

AZKOREA

Irati Astondoa Urrezko Aizkorako finalean

Erredakzioa

Zezeilaren 17an, Itxaso Onsalori nagusitu jakon Irati Astondoa azkolari zeanuriztarra Oñatin eta holan,

Emakumeen Banakako Urrezko Aizkoraren Txapelketako finalerako sailkatu da. Finala martiaren 2an jokatu da Azpeitiako Izarritz pelotalekuan eta han Maika Ariztegi eta Nerea Sorondo izango ditu aurkari.

Gizonetzkoen Binakako finala

Gizonetzkoen Urrezko Aizkorako Binakako finala be jokatu da. Aitzol Atutxa eta Julen Alberdik finalerako pasea lortu eban zezeilaren 3an, eta Larrañaga eta Otaño be sailkatuta egozan finalerako. Txapela eskuratzeko saiatuko dan hirugarren bikoia ebatzi zan Oñatin zezeilaren 17an. Iker Vicente eta Ruben Saralegi, Xabier Orbegozo eta Jon Rekondoren kontra neurtu ziran. Vicentek eta Saralegik irabazi eban.

Beraz, martiaren 2an, Azpeitian, Aitzol Atutxa eta Julen Alberdi, Eneko Otaño eta Mikel Larrañaga, eta Ruben Saralegi eta Iker Vicenteren kontra neurtuko dira Binakako Urrezko Aizkorako txapela lortzeako.

BAT EGINDAKO DENDAK:

Igorre gure dendakaz

erosketak %20 merkeago

25€ KO BALIOA DU PREZIOA: 20€

Antara Kirolek
Analar Igorre
Arratik
Bartzaki
Beasiko
Beatziz Fruita-denda
Decoración y Piedra Igorre
Dia Autzerbitzua
Expert Arratia
Galanta
Gas Lore Taberna
Irako Dinetakoa
Kantabriko Arraindegia
Kil Kili
Kizil
Lorane
Maran Kirolek
Muebles Igorre Altzariak
Mugarri
Oñatez Optika
Orrie Paperdenda
Pino Fruita-denda
Palitte
Rekalde Harategia
Sein
Zazpi Harategia

KAMPANIA EZAUTSIA:
1. 25€ bako bakoak dira, bakoak 20€ erretan.
2. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira, bako bakoak 20€ bako bakoak dira. Kampanian bako bakoak 25€ bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira.
3. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira, bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Kampanian bako bakoak 25€ bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira.
4. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira, bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Kampanian bako bakoak 25€ bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira.
5. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira, bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Kampanian bako bakoak 25€ bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira.
6. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira, bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Kampanian bako bakoak 25€ bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira.
7. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira, bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Kampanian bako bakoak 25€ bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira.
8. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira, bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Kampanian bako bakoak 25€ bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira.
9. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira, bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Kampanian bako bakoak 25€ bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira.
10. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira, bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Kampanian bako bakoak 25€ bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira. Bako bakoak 20€ erretan bako bakoak dira.

ANTOLATZAREAK
IGORREKO UDALA

LAGUNTZAREAK
ame
Sabade@Guipuzcoano

JOKOAK

Bideojokoen eragina umeen heziketan landu dabe Igorre eta Lemoako eskoletanErredakzioa


Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Prebentzino eta Bardintasun arloak alkarlanean, bideojokoak andra eta gizonezko rol eta estereotipoak eregitzeko daukien eragina, eta sortzean daben adikzino arriskua balorteko, Emoki proiektua landuteko tailerrak egin dabez Igorre eta Lemoako Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasgeletan.

Emoki kooperatibakoak emondako tailerretan, ikasgela horreetako umeak, ze bideojoko eta sare sozial eta zelan erabiltzen dabezan aztertu dabe. Oihane Zulet AUMko Bardintasun Teknikariaren ustez, "sare sozialetako arriskuen inguruan badago konzientziarazino puntu bat gizarlean, baina jokoai jagokienean ez" eta oindino ez da ikusten umeen heziketan daukien eragina.

Gizon bortitzak eta andra hipersexualizauak

Emoki kooperatibako Jone Zalduiegik eta Ainhoa Arruabarrenak Bardintasun Teknikariari azaldu-takoaren arabera, LH 5. mailako ikasleen artean modan dagozan bideojokoak GTA (Grand Theft Auto) eta Fortnite dira mutilen artean, eta Sims eta "neskentzako" beste joko batzuk, nesken artean. Izan be, neskentzat ei dira batzuk, eta mutilentzat beste batzuk. "Mutilak bideojokoetan jokatzen dabela dinoe; neskak, jokatzen arren ez dabe esaten, edo ez dabez bideojokotzat hartzean".

Zulet-en ustez umeak oso goiz hasten dira holango bideojokoak erabiltzen eta han, gizonezko bortitzak eta andrazko hipersexualizautakoak agertzen dira. Hori dala-eta, umeak bape be osasun-garria ez dan kapital erotiko bat barneratzen dabe.



ANTZERKIA

Atx Teatroak Zazpiak bat antzezlanana eskainiko dau Igorreko Lasarte AretoanErredakzioa

Martiaren 10ean, 20:00etan, Atx Teatro konpainiak, *Zazpiak bat. Gaiztoetan gaiztoenak* antzeztuko dau Igorreko Lasarte Aretoan. Izenburuak, zazpi pekatu kapitalai egiten deutse erreferentzia eta geure buruari ipinten deusaguzan debeku, arau eta mugen gaineko hausnarketea da. Miriam K. Martxantek, Estibaliz Villak eta

Aiora Sedanok egiten dabez akto-re lanak.



"Nondik dator gizakiaren gaiztakeria? Berezkoa da? Gure kulturako zazpi pekatu kapitalak eta orokorrean pekatuaren idea hartu eta, Victor Frankensteinek egin eban moduan, gizaki barri bateri bizia emongo deusagu, groteskoa, basatia, gupidabakoa... Komeria, satira eta sarkasmoaren lengoaiagaz, guztiok alfonbra azpian ostenduten doguna, agerian geratuko da" sinopsiaren arabera.

SARIA

Gontzal Mendibilek Radio Bilbaoren Bikaintasunari saria jasoko dauErredakzioa

Radio Bilbaoren Bikaintasunari sariaren hirugarren edizino da aurtengoa. Musika arloan, saria Gontzal Mendibil kantautore zeauriztarrentzat izan da. Martiaren 12an, Arriaga Antzokian egingo daben ekitaldian jasoko dau.

Radio Bilbaok bederatzi arlotan emongo dau bikaintasun saria, arlo horreetan Bizkaian egindako lana aitortzeko.

Gontzal Mendibilez gainera, beste saridunak honeek dira: komunikazino arloan, Juanma Lopez Iturriaga; kirol arloan, Lointek Gernika Bizkaia saski baloi taldea;



enpresa arloan, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa; gastronomian, Eneko Atxa; arte eta kultura arloan, OLBE (Operaren Lagunen Bilboko Elkar-tea); ikerketa arloan, Biocruces; euskera arloan, Euskaraldia eta inpaktu sozialaren arloan, Bizkaiko Pensionisten Mobimentua.



BERTSOLARITZEA

Arratiako talde bat Bertsozale Elkarteak antolatutako Bizkaiko Taldekakoa Txapelketan

Erredakzioa

Iñaki Iturriotz, Illart Gumuzio, Igor Menika, Juanjo Respaldiza, Kattalin Burgoa, Olatz Urigoitia, Jesus Angel Santa Cruz, Irati Santa Cruz, Garazi Santa Cruz, Amaier Axa eta Maddi Zabalok osotuten dabe Aramotzetik Itxina izeneko taldea. Arratiakoak, Berriz-Elorrioko Miotako bidelapurak eta Santutxuko Otsoa & Co taldeakaz neurtuko dira Igozren martiaren 23an Bizkaiko Taldekakoa bertsozaritza txapelketan.

Aurtengoa bigarren edizioa da. 2017an sortu zan Taldekakoa bertsozaritzearen oinarria indartzeko helburuagaz. Aurten 21 taldek emon dabe izena eta hiru fasetan jokatuko da. Finala maiatzaren 25ean izango da.

Taldeetan gitxienez sei lagun egon behar dira: hiru bertsolari, gai-jarzaile bat, epaile bat eta laguntzaile

bat; baina gehiago izatea komenidu da, saio bakotxean sei egon behar dira-eta. Kanporaketetan, saioa puntuetako, hiru taldeetako epaileen balorazioa eta publikoaren eretxia hartuko dira kontuan. Danan artean ebatziko dabe hiru taldeetatik zeinek egingo dauan aurrera.

Hasibariak eta ezagunak

Taldekakoa 200 lagun inguruk hartuko dabe parte, 21 taldeetan. Bertsolari batzuk gazteak dira, beste batzuk beteranoak; batzuk, aspaldi bertsozik aparte ibili diranak eta beste batzuk hasibariak. Badagoz Bizkaiko Txapelkunak eta Txapelketa Nagusian parte hartu dabenak be. Holan, barbarako, Arratiakoen aurkari diran taldeetan Txapelketa Nagusian izandako izen handiko bertsolari bi dagoz; Miotako bidelapurak taldean, Miren Amuriza, eta Otsoa & Co taldean Oihana Bartra.



ANTZERKIA

Non gaude? antzezlan Diman

Erredakzioa

Martiaren 8a dala eta Arratian antolatu diran ekintzen artean, martiaren 9an, zapatua, 19:00etan, Lakrikun Antzerki Taldeak, *Non gaude?* antzezlan taularatuko dau Dimako eskolako areto barrian. Gurutze Eizmendi, Idoia Uranga eta Alaitz Olaizola dira antzezleak.

Sinopsia

Non gaude? trilogia baten hirugarren zatia da. *Greban gaude* eta *Prest gaude* lanen jarraipena. "Oingoan, non gauden be ez da-

kigu. Gagozan lekuan gagozala be, oindino ez gagoz nekatuta. Zeruak eta lurrak bat eginda be gerra emoten jarraitzeko asmorik ez jaku falta..." dinoe protagonistak.



ZINEKLUBA

Alanis film argentinarra Igorreko Zineklubean

Erredakzioa

Martiaren 14an, 20:00etan, Anahí Berneri zuzendariaren *Alanis* 2017ko pelikula argentinarra ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan. Filmak hainbat sari jaso ditu; tartean dagoz, Festival de la Habana eta Argentinako Premios Sur eta Premios Condor de Plata eta Donostiako Zinemaldiakoak, barbarako.

Filmak prostituzioaren gaia tratetan dau. Alanis ume txiki baten ama da, eta Gisele izeneko lankide batez batera bizi da apartamentu baten. Bertan hartzean ditu bezeroak, baina

egun baten inspektore bik etxea itxiarazo, eta Gisela atxilotuko dabe personak salerosten ibiltea leporatuta. Bere auzo bortitzean,

Alanis aurrera egiten saiatuko da, aldi berean laguna eta semea zainduz. Klean egiten dau behar, baina kaleak bere lege propioa izanda, Alanisek gogor egin beharko dau burrukan bere lekua egiteko.

Anahí Berneri

Anahí Berneri (San Isidro, Argentina, 1975) zinema zuzendaria eta ekoizle argentinarra da. Emakumezko zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra irabazi eban 2017ko Donostiako Zinemaldian, *Alanis* filmagaz. Donostiako Zinemaldian zuzendari onenaren saria jaso dauan lehen andrea da.



DUNBA

Diseinua International (e-MOTIVE) proiektua

Ikasturte honetan, barriro be, HETELen eta ROC Da Vinciren artean Diseinua International lankidetzeari ipiniko da martxan, e-motive metodologiari jarraituz eta BBK Fundazioak eta Vital Fundazioak babestuta.

Zulaibar Lanbide Ikastegia

Aurtengo edizioan Lander Tercero Arroyo, Zulaibarreko ikasleak parte hartuko dau, HETELeko Egibide, La Salle Berrozpe eta Somorrosto Lanbide Heziketa ikastetxeetako ikasleakaz batera. Atzerriko ikastetxea Holandako ROC Da Vinci ikastetxea izango da.

Ikasleak Euskal Herrian ezetu dabe alkar, eta taldeak daborduko jardun bizian dabilz, irakasleak aurten proposatutako erronkari aurre egiteko: harizpiak egiteko makina bat diseinetzea, lehengai gisa plastikoak erabiliz. Gero, harizpi horreek 3D inprimagailuetan erabiliko dira, besteak beste.

Proiektuan parte hartzean dabenak, proiektu bat aurrera

aterateko alkarlanean lan egiten ikasteaz gainera, funtsezkoak diran beste trebetasun eta gaitasun batzuk be barneratuko ditue. Beste gaitasun batzuen artean, ingeleza menperatzea, kultura

anitzeko taldeetan lan egitea, independentzia eta autokudeaketea.

Erronkari emondako urtenbidea irakaslez eta enpresez osotutako epaimahai baten aurrean



Zulaibargo ikasleak.



aurkeztuko da martian, Holandan.

Bai Zulaibarren eta bai HETELen poz-ozik gagoz beste ikasturte baten lan metodologia horregaz aurrera jarraituko dogula ikusita.

AGENDEA

MARTIAK 1 ARRATIA

Martiaren 15ean hasiko dan urtebete eta biko umeentzako musika ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Izena, *arratia*. musikaeskola@gmail.com helbidean edo 94 631 73 52 telefonon, astelehen, eguazten eta barikuetan 10:00etatik 13:00etara emon daiteke. Ikastaroa Igorreko Kultur Etxean izango da.

ARTEA

Martiaren 15, 22 eta 29an izango dan *Emociones y pensamiento positivo* ikastaroan izena emoteko epea zabalik hilaren 8ra arte. Jubiladuen alkarteak, Udalak, Arteako eskoleak, IHOBEk, Udalsarea 21ek, Bizkaikoak-ek, Arteako Herriko Bentak eta Guraso Elkarteak antolatuta.

16:00etatik 19:00etara, hilaren 18ra arte, *Izadi sublimea* erakusketea Kultur Etxeko areto nagusian.

15:00etan, Inauterietako ikuskizuna, eskolan; mozorroa prestatu ludotekan; 16:30ean, txokolata plazan; 17:45ean, Inauteriak ludotekan, mozorro bat prestatu eta desfilean parte hartu. Kultur Etxeko sotoan; 20:30etik aurrera, disko jaia Zazkel taldeagaz Herriko Bentan. Mozorrotuta joan.

19:00etan, ipuin kontakizuna *Itsasminetx* Kultur Etxean.

AREATZA

18:00etan, Jai Batzordeko batzarra udaletxean.

BEDIA

Kolazinakoko Mendi Eguneko lasterketetan izena emon daiteke www.kolazinakomendieguna.com webgunean.

16:30etik 19:30era, hilaren 7ra arte, Baqueira Beretara eskiatzen joateko izena emoteko epea. Liburutegian.

DIMA

18:00etan, Zamakola jubiladuen alkarteak antolatuta, Abel Ariznabarretaren berbaldia *Kortabasoak* Diman jubiladuen lokalean.

Herri Inauteriak. 19:00etan, desfilea eskolatik hasita; 20:00etan, herri afaria eskolan; 21:00etan, bingoa; 22:00etan, erromeria. Aurtengo gaia: K letrea izango da.

Hilaren 17ra arte, Dimako Jaietako Pelota Txapelketan izena emoteko epea 688 653 473 telefonon.

IGORRE

Apirilaren 2ra arte, apirilaren 28tik maiatzaren 7ra arteko Fiteroko bainuetxean egonaldi eta tratametuak izena emoteko epea jubiladuen txokoa.

17:00etan, Guraso Elkartearen eskutik jaialdia: DJ Isma eta txokolate jana. Aratusteak.

LEMOA

10:00etan, eskola-umeen gurasoak txokolata bananduko dabe; 11:30ean, eskolako mozorro festa. Gaia: emozinoak. Kiroldagian.

Hilaren 3ra arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Luz Ardidenera eskiatzeko urtekerea.

Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketan lanak entregetako atzen eguna. Udal Liburutegian.

ZEANURI

18:30etan, zinea *Figuras ocultas* Kultur Etxean.

ZEBERIO

20:15ean, Austarri Kultur Elkarteak

antolatuta, diskofesta Xaiborregaz, plazako aterpean.

Martiaren 4ra arte, klima aldaketari buruzko bideo laburren lehiaketan parte hartzeako lanak bialdu daitezke info@daltalde21.eus helbidera.

MARTIAK 2 AREATZA

AKKB Eguna. 09:00etan, Lamino Kirol Klubak antolatutako mendi ibilbidea Upo inguruetatik (10 kilometro); 15:00etan, babajana hotelean, mozorrotuta joan; 17:00etan, mariabiak, Mariachis Dominguez; 18:30ean, trikopotea Rober eta Idoiaz.



IGORRE

12:00etan, 105eko aparkalekukit kalejirea; 15:00etan, herri bazkaria Arratiko Zekorrek Rugby Elkarteak antolatuta; 17:00etan, mozorro desfilea; 18:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz eta mozorro sari banaketea.

22:30ean, Houston Pub taldearen kontzertua Hegazkina tabernan.

LEMOA

17:00etatik 20:00etara, Udalak antolatuta, Haurrentzako Inauteri Festa kiroldegian; 19:00etan, Lemoako Jaietako Garsu Elkarteak antolatuta, Inauterietako poteo musikatu eta kopaua Herradura tabernatik hasita (saria mozorro originalari); 22:00etan, kopaua parte-hartzaileentzat anbulatorioko aterpean; 23:00etan, erromeria Zirkinik bez taldeagaz Karabie



Arratiako taldea Bertsolari Gazteen BBK Sariketan

Martiaren 14an, goizeko 11:30etan, ekingo deutso Arratiako taldeak XXVII. Bertsolari Gazteen BBK Sariketari Igorreko Arratia Institutuan. Arratiarrak Hego Uribe taldea eukiko dabe aurkari. Bi kategoria dagoz BBK Sariketan; hamazortzi urte artekoa eta hemeretzi eta hogeta lau urte bitartekoa.

Saioak sailkapen izaerakoak dira, beraz, Arratiako taldeak irabazi ezker, martiaren 27an izango dau finalurrekoa Uribe Butroe eta Busturialdearen arteko kanporaketea irabazten dauanaren kontra, Deustuko Bidarte kultur gunean 10:45ean. Finala BBK Aretoan izango da apirilaren 3an arrastiko 18:00etan.

Gaztetxean.



MARTIAK 3 ARANTZAZU

17:30ean, mozorro kalejirea frontoian hasita; 18:00etan, Ogi Tostada Lehiaketea Herriko Tabernan; 18:30ean, txokolata eta bizkotxoak danontzat.

BEDIA

Ganguren Mendi Taldeak antolatuta, eski urtekerea Alto Campoo-ra.

IGORRE

17:00etan, zinea *Las aventuras del pequeño* *Colon*; 19:30ean, *El Blues de Beale Street* Lasarte Aretoan.



ZEBERIO

08:00etan, Austarri Mendi Taldearen mendi urtekerea, Urkiola-Untzillaitz-Mañaria (13 kilometro) Plazan.

MARTIAK 4 ARTEA

10:00etan eta 12:00etan, jubiladuentzat telefono mobikorraren erabilerearen gaineko ikastaroa jubiladuen egoitzan.

BEDIA

17:00etan, Inauterietako tailerrak. Ateak zabalik ludotekan.

IGORRE

Apirilaren 1era arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta *Mendirik Mendi* argazki erakusketea Lasarte Aretoan.

LEMOA

Hilaren 13ra arte, *Barreterapia*, *Loreontzi-barazkigintza* eta *Loreaintza* ikastaroetan izena emoteko epea zabalik. Udaletxean.

MARTIAK 5 BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 22ra arte, garagarriaren 1etik 12ra izango dan Txiki Txorako, Udalekuetarako eta garagarriaren 14tik 24ra izango dan "Bediako Uda Gaztean" en izen emotea Liburutegian.

Inauteriak. 17:00etatik 17:30era, mozorro desfilerako izen emotea, photocall-a; 17:30ean, mozorro desfilea herri mailan; 18:00etan, Kili Kili Punk taldea, musika zuzenean; 19:30ean, txokolata.

IGORRE

19:00etan, mahai-ingurua, *Zer egiten dogu zaintza lanak egiten ditugunean?* Kultur Etxean.

ZEANURI

Gorbeia Jubiladu eta Pensionisten alkarteak antolatutako Bilborako txangoan izena emoteko atzen eguna.

MARTIAK 6 DIMA

Martiaren 9ko andren afarian izena emoteko atzen eguna. Baltzola jatetxean.

MARTIAK 7 ARTEA

12:00etan, zugatz eguna eskolako umeakaz.

IGORRE

19:00etan, Korrika Batzordea Kubulu Euskaltegian.



ZEBERIO

17:00etan, hurrengo eguneko greba feministea dala-eta, kotxe karabana Zeberio-Ugao-Arrankudiaga-Zollo. Prestaketea eta hasiketea Zeberioko parkinean; 21:00etan, kazerolada informatiboa Ugao plazan hasita.

MARTIAK 8 ARRATIA

11:30ean, Igorreko manifestaziora joateko

zutabeak. Lemoa/Bedia: Igorreko eleiza azpiko parkinetik; Dima: BATZetik; Zeanuri, Areatza, Artea eta Arantzazu: Monterotik; Gazteak: Kiñu Gaztetetik.

DIMA

10:00etan, greba feministea dala eta, arbolak apaindu plazan; 11:30ean, Dimako zutabea Igorrera BATZen; 12:00etan, manifestazioa Igorren; 14:00etan, bazkaria plazan (bakotzak berea eroan); 17:30ean, konzentrazioa plazan; 19:00etan, manifestazioa Bilbon.

IGORRE

12:00etan, *Heteropatriarkatu kapitalistari planto!* manifestazioa, Kultur Etxetik hasita; ondoren, txapak eta photocall-a; 14:30ean, bazkaria (bakotzak berea eroan) eta gero kantaldia Kultur Etxeko plazan. Eguraldi txarra egin ezker, Kiñu Gaztetxean.

LEMOA

09:45ean, Zaplast talde feministak deituta, konzentrazioa Plaza Gorrian.

ZEBERIO

10:00etan, *Heteropatriarkatu kapitalistari planto!* konzentrazioa plazan; 10:00etatik 12:00etara, pikete informatiboak Ugaon; 14:30ean, bazkari autogestionaua eskola zaharrean; 18:08an, Ugaoko tren geralekuan Bilboko manifestaziora joateko.

MARTIAK 9

DIMA

10:00etan, Arratiako Andren Mendi Martxea plazatik urtenda, ondoren kopaua; 19:00etan, Lakrikun antzerki taldearen *Non gaude?* eskolako ganbaran; 21:30ean, afaria Baltzola jatetxean eta ondoren jantzaldia Kimera taldeagaz.

LEMOA

09:00etatik 14:00etara, *Hiri-baratzezaintza* tailer trinkoa. Loreaintza eta ortuen sorrera etxerako. Elizondoko Kulturugunean.

08:30ean, eskolatan. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Oroitze Eguna. Lemoa-Urtemondo (791 m.)-Artaun. 11:00etan, Urtemondoko tontorrean.

16:00etan, Eskualdeko Bola Txapelketea San Inazioko bolalekuan.

MARTIAK 10

AREATZA

Mendi ibilbidea Parkeak antolatuta. Saldropo-Arralde-Atxuri-Saldropo. Zailtasuna: ertaina. Izena emoteko 94 673 92 79 edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean.

IGORRE

20:00etan, Atx Teatroak, *7ak bat*. Gaiztoetan gaiztoenak Lasarte Aretoan.

MARTIAK 11

ARTEA

10:00etan eta 12:00etan, jubiladuentzat telefono mobikorraren erabilerearen gaineko ikastaroa jubiladuen egoitzan.

MARTIAK 12

ZEANURI

09:15ean, Gorbeia Jubiladu eta Pensionisten alkarteak antolatuta, Bilbora urtekerea, autobus geralekuan, Bizkaibusean; 10:30ean, San Mames Museoa eta futbol zelaian bisita gidatua; 14:30ean, bazkaria Kafe Antzokian.

MARTIAK 14

IGORRE

17:30ean, Igorreko Jubiladuen alkarteak antolatuta, Pilar Castroren berbaldia, *Bakardadea* Jubiladuen lokalean.

20:00etan, zinekluba *Alanis* Lasarte Aretoan.

AKIKI KO

I
m
a
n
O
l
a
t
u



IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m², 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan.

Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

BIZITZA BIKO ETXEA SALGAI

Bizitza biko etxea saltzean dot Diman, plaza ondoan. 210 m² ditu, hiru solairutan bananduta, lursaila etxe inguruan eta atzean. 635 737 879 (Aiora).

DANERIK

TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixa erosten dot, Sol tonoon balego hobea. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

ETXE BILA

Arratiatik baseri-etxe bila gabizan 4 andra gara (etxerako modukoak). Alkilerrean. Interesdunak 685 707 176 zenbakira deitu.

ALOKAIRURAKO LAGUN BILA

Dimako Egiraun auzoan leku eder baten

baserri dotore eta polit baten alokairua konpartiduteko personen bila gabiz. 450 euro. Ortu, tenis zelaia eta bainua hartzeako aukerea. Interesdunak 607 482 499 telefonora deitu.

ETXE BILA

Areatzan pisu/etxe bila gabizan familia gara. Alokatzeko zein erosteko prest. Herrigunetik hur egotea gustauko litxakigu. Interesdunak 653 745 838 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Lur antzezlanerako.*

Ganzabal Mendi Taldea (Lemoa)
Ziortza Ajuriagerra (Dima)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *El Blues de Beale Street* filmarako.

Sonia Ingunza (Areatza)
Andoni Garai (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean meda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tlfnoa: 94 631 92 96 • seimmeda@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

begitu
mota etxe sarrera

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOA, Bizkaia
Tel: 609 482 839 • 699 290 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a 48140 IGORRE
Tlf: 94-673-70-87
Tlf: 609-79-40-54

ZEKUTZE
JATEETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutzejateetxea@hotmail.com
Tel.: 94 631 52 83

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
-Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixarra egin eta bukunduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

ANE ELORDI ETA IGOR ELORDUI

Arratiako AEK-ko sei lagun joango dira Korrikako furgonetetan

Andoni Ariznabarreta, Gorka Barrenetxea, Ane Elordi, Igor Elordui, Joseba Irazabal eta Amagoia Santacoloma Arratiako AEK-ko irakasleak, 21. Korrikako furgonetan joango dira Garestik Gasteizera lasterketea jagoen eta lekukoa bistatik galdu barik. Zortzi laguneko talde bi joango dira 14 orduko txandak eginez. Euskal Herri mailako taldeak dira eta Arratiako ordezkari handia da bertan.

Ane Elordi, zornotzarrak 4 urte daroaz Arratiako AEKn irakasle. Lehen aldia da furgonetan joango dana. Igor Elordui barriz, furgonetan esperientzia handia dauka, Korrikako hainbat ediziotan ibili dalako bertan. Komunikazio arduraduna be izan da 12 urtez. Euren egon da BEGITU jakiteko zelan prestatzen diran erantzukizun horretarako.

Erredakzioa

Kubulu Euskaltegi hainbat joango zara Korrikako furgonetan. Ane zuretzat esperientzia barria izango da; ez ordea zuretzat, Igor.

A.E.: Bai, gu eta euskaltegi honetako beste 4 irakasle be bai. Izan be, AEK-ko beste hainbat lagunegaz batera, osotuko doguz karreran joango diran talde biak. Talde bakotxean zortzi lagun inguru joango gara, 14 orduko txandak egiten. Garestetik hasita Gasteizera. Talde baten egongo gara hamar egunetan. Nire kasuan lehenengo aldian izango da eta oso pozik

nago modu honetan parte hartu ahal izango dudalako.

I.E.: Nik badaukat esperientzia. Ez dakit zenbat ediziotan egon nazan. Nire lehenengo Korrika furgonetan izan zan 2001ean. Harrezkero prentsa arduradun joan nintzan Korrikara. Azkenengo hiru ediziotan, prentsa ardurak itxi, eta barriro furgonetan ibili naz. Eta beti esaten dot, bizitzak emon deustan opari bat edo dala. Sano inportantea izan da niretzat Korrika holan bizi ahal izatea, bertatik bertara.

Talde bietan Arratiako AEK-ko jentea dago, ezta?

A.E.: Bai. Euskal Herri mailan egiten da sailkapena AEK barruan. Guk

geure burua aurkeztu izan dogu, furgonetan joan gura dogulako. Holan hartu gura dogulako parte. Aukeratuak izan gara eta hori guretzat, ohore bat da. Gure taldean zortzi goaz eta bost gara bertakoak. Beste taldean be, beste zortzi doaz eta gure euskaltegi bat dago han be.

I.E.: Bitxia da ze Euskal Herri mailako taldeak dira, EH osotik aurkezten dira; baina, kasualdidez, edo dana dalakoagaitik, arratiarrak gara talde baten erdia eta bestean be bat badago. Orduan esan lei, Arratiako toke genuinoak daukala.

Zein taldeetan joan zelan egiten da, zozketaz?

I.E.: Ez, AEK-k urteak daroaz Korrika antolatuten eta nahiko modu natural baten izaten da. Korrika hau oso Arratiakoa izango da, kontuan izanda Arratiako zenbat jente doan Korrikako furgonetetan, baina sasoi baten lekeitiarrak izaten ziran asko. Azkenean arduradun bakotzak bere konfiantzazko jentea hartzean dau. Nahiko modu natural baten izaten da: batzuek itxi eta besteak etorri.

Zein da furgonetan egiten doazuen beharra? Zein da zuen egunerokotasuna?

I.E.: Momentuak dagoz; beti da bardina, baina beti da desbardina. Anek esan dauan moduan zortzi lagun joaten gara. Euretako bat arduraduna da, beste bat argazkilaria eta gainontzekoen artean bananduten dira lanak: gidari lanak, furgoneta bi gidatu behar dira eta; mikrofonoko lana, jentea animetako; sorgailua, musika aparatua eta abar gobernau... Eta gero karrera jagon egin behar da. Beti lekuko eroaleari kargu egin eta pendiente egon; bere atzean pankarta ipini, korrikalariak eta trafikoa zaindu...



Lan eta erantzukizun handia...

I.E.: Bai, baina erlajata egoteko momentuak be egoten dira. Baina ardu-rea be bada, bai. Lekukoa beti bistan euki behar da.

Egia da ekipo baten barruan perfil diferenteetako personak egoten dirala. Batzuek gurago izaten dabe mikrofonoa hartu, beste batzuk kirolariagoak dira eta gurago izaten dabe korrika egin, edo gidatu... Ez dira perfil oso zehatzak, eta batzuek egiten dabe gauza bat eta beste batzuek beste bat. Baina 11 egunetan danok danerik egin behar dogu.

Zuretzat lehenengo aldian da, zelan bizi dozu? Ilusinoz? Lan gogorra da.

A.E.: Bai, ilusinoz hartzean dot. Gainera taldean Euskaltegi beste lau joateak babesa emoten dau, lasaiago zoaz eta datorrenari helduteko prest. Egin behar dana egingo dogu: gidatu edo dana dalakoa.

I.E.: Hamalau orduko txandak dira. Normalean, jentek errepikatu egiten dau, baina gogorra da. Fisikoki gogorra. Ez galapan asko egin behar dalako, baina hamalau ordu dira furgonetan gora eta behera, eta deskantsu giti hartuta.

Korrika ez da geratzen, eta txandea amaitutakoan ikusi behar dozu hu-

rengo txandea non hartzean dozun, bidearen erdian edo, lotarako lekua hartu eta jatordu on bat egiteko. Egunean behin behintzat ganoraz jan behar da, gainontzekoa furgoneta barruan izaten da-eta. Ganoraz jan eta lo egin. Lotarako be ordu giti geratzen dira eta.

Prestaketarik egiten dozue egun horretan sasoiari egoteko?

A.E.: Bai, apur bat bai.

I.E.: Galapan egiten dogu, ariniketan, eta osasuna apur bat jagon. Igoal jentek pentsetan dau egiten doguzala ez dakit zenbat kilometro galapan Korrikan, ez da hori. Gora eta behera ibiltzen gara. Prestaketa fisiko bat behar da horretarako.

Uriburuetan jente gehiago egoten da eta lasterketea kontrolatuko modurik onena, bertan galapan egitea izaten da. Pankarta kide bi ipini eta lekukoa daroana aurrean.

Aurten Arratiatik ordutegi hobean pasauko da Korrika, ez aurrekoetan bezain berandu.

A.E.: Bai, egun polita tokau jaku, zapatua, justo amaitzeko bezperan eta ordu oso ona, iluntze parte horretan. Gainera guri toketan jaku orduan. Eta aurten Dimara be helduko da. Eta Bediatik izan ezik, beste Arratiako herri guztietatik pasauko da.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA